



Durangoko jaietan umeentzat antolatu diren ekintzen %50 erdaraz izan dira

Berbaro euskara elkarteak hizkuntzaren neurketa egin du San Fausto jaietan. Jasotako datuak "iraultzeko" sasoia dela diote. • 2-3

“Gaba Baltza antolatu dugu, jai hau gurea ere badela gogoratzeko”

Alaitz Gerediaga, Maitane Totorika eta Larraitx Zarrabeitia, lurretan Gaba Baltza antolatu duten talde eragileetako ordezkariak dira • 5



Durango prest dago Euskal Herriko Mugimendu Feministaren hitzordu nagusia hartzeko

Durango | Jardunaldi Feministak egingo dituzte asteburu osoan, eta datozen hamar urteetarako lan ildoak marraztuko dituzte. • 4

Panteoi bateko ikur frankista kenduko du Abadiñoko Udalak

Abadiño | Ikurra panteoi batean egon da urte luzez, ahuspez ipinita, ezkutuan. Legea bete eta ikurra erretiratu egingo duela esan du alkateak. 6. orrialdea



Grebak eskualdeko kiroldegietan, lan hitzarmena berrizteko 8. orrialdea



“Jaien antolakuntzan dabilen eragileei laguntza eskaintzen diegu, denon artean datu hauek aldatzeko”

Berbaro elkarteak hizkuntzaren neurketa egin du San Fausto jaietan; datu hauek "iraultzeko" garaia dela diote

DURANGO • JONE GUENETXEA

Azken urteetan San Fausto jaietako ekimenetan euskarak izandako presentziak kezka piztu du Berbaro elkarteak. Egoera aztertu guran, amaitu berri diren jaietan programatu eta eskaini den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzea beharrezkotzat jo dute. Horretarako, Donostiako Bagera elkarteak Aste Nagusian egiten duen hizkuntzaren neurketa hartu dute abiapuntu Berbaroko kideek. Donostiarren metodologian eta egiteko moduan oinarrituta, jaietan hizkuntzaren neurketa egin dute. Neurtu diren 91 ekintzetatik, 37 erdaraz izan dira, 32 euskaraz, eta 22 ele bitan. Ehunekoetan, %41 erdaraz programatu da, %35 euskaraz, eta %24 ele bitan.

Emaitzak aztertuz gero, deigarria da helduei eta umeei zuzendutako ekitaldietan euskararen erabilera dagoen aldea. Helduen ekintzetan %38 euskaraz izan da, %37 erdaraz, eta %25 ele bitan. Umeen kasuan, %50 erdaraz izan da, %29 euskaraz, eta %23 ele bitan. Beraz, umeei kontsumitzen dituzten ekintzetan ekitaldi gehiago egin dira erdaraz euskaraz baino. "Bereziki esanguratsua da umeei

zuzenduta egindako ekintzarik gehienak erdaraz hutsez izatea gehien bat, eta helduei zuzendutakoak baino askoz gehiago izatea", azaldu du Amaia Ugalde Berbaroko langileak. Datu hauek ez datozela bat Durangoko hizkuntza ulermen datuekin gogoratu dute. Izan ere, EUSTATEk egindako azken inkestaren arabera, Durangoko biztanleen %73 euskara ulertzeko gai da, eta umeen kasuan, %97.

“**91 ekintza neurtu dituzte; 37 erdaraz izan dira, 32 euskaraz, eta 22 ele bitan**”

Neurketen lagina eta metodologia

San Faustoetako asteburu bietan programaturiko ekintzarik gehienak neurtzen ahalegindu dira. "Orokorrean, ekimenik jendetsuenak neurtu ditugu, guztiei garrantzi berdina eman diegu, partaide kopurua neurketatik kanpora utzita", azaldu du Markel Sanchez Berbaro-

ko zuzendariak. Guztira, 91 ekintza behatu dituzte. Hizkuntza duten jarduerak baino ez dituzte kontuan hartu. Ekintza bera parte hartze-koa izan bada, ez da partaideen hizkuntza erabilera neurtu, soilik antolatzaileena eta dinamizatzaileena. Bestalde, ekintza bat uneoro martxan egon bada (barrakak, adibidez), egunean behin egin izan balitz moduan kontuan hartu dute. Ekintza bat neurtzerakoan, aurkezpenean, ekintza, dinamizazioa eta euskarriak kontuan hartu dituzte. Lau elementu hauek ardatz hartuta, ekintzak, orokorrean, euskaraz, erdaraz edo ele bitan izan diren ondorioztatu dute.

Txosna Batzordea

Beste datu adierazgarri bat Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak antolatutako ekitaldien artean hizkuntzaren erabilera dagoen aldea da. Txosna batzordeak antolatutako programazioaren %71 euskaraz izan da, %21 erdaraz eta %8 ele bitan. Jai batzordeak antolatutako ekitaldien kasuan, osteraz, %25 euskaraz izan da, %42 erdaraz, eta %33 ele bitan.

Ekitaldiak arloka ere banatu dituzte hizkuntzaren neurketa

egiteko. Helduen kasuan, musikaren erdia erdaraz izan da. %31 euskaraz, eta %19 ele bitan. Antzerkiari dagokionez, antzezlan bi kontratatatu dira eta biak erdaraz izan dira. Kiroletan ere nabarmena da erdararen erabilera: %75. Lehiaketen kasuan, %50 erdaraz izan dira, eta %50 ele bitan.

Barraken gunek hainbat ume eta gazte erakartzen ditu. Han aztertutakoaren arabera, %100 erdaraz izan da. Neurketa egin den 7 egunetatik 7etan gunea erdaraz izan da.

“**Bereziki larria da umeei zuzendutako ekintzen hizkuntza eskaintza**”

Ondorioak ateratzen

"Argazki hau atera dugu datorren urteko edo hurrengo urteetako jaiei begira datuok hobetze aldera ahalik eta euskarazko programazio zabalea egiteko". Berbarok elkarteak dioenez, datu hauek "iraultzeko" unea da. "Datuok eskaini gura izan ditugu egoera zein den ikusi, hausnartu eta denon artean aldatzeko. Jai egitaraua prestatzea ez dela erraza badakitela diote elkartetik, baina datu hauek ez direla onargarriak. "Bereziki larria da umeei zuzendutako ekintzen hizkuntza eskaintza", dio Sanchesek. Helburua ulermen datuetara heltzea izan beharko litzatekeela diote elkartekoek.

Kasu askotan, egoerak konponbide erraza duela gogoratu dute: aurkezle edo dinamizatzaile euskaldunak eskatzea, itzulpen zerbitzuak eskaintzea, euskal musika eskaintzea barraka edo ekintzetan ipintzeko, eta abar.




Jaiak gozamenagaz loturiko egunak dira, eta herritar guztiek euskaraz gozatzeko aukera izatea inportantea dela dio Ugaldek.

“**Jaiak gozamenagaz lotuta daude, eta herritarrek euskaraz gozatzeko aukera izan beharko lukete**”


"Behatzen egon garen ekitaldi batzuk euskaraz izan dira eta euskara ez dakien jendeak ere parte hartu du, arazorik barik", gogoratu du Sanchezek.

Elkarlanerako deia

Txosten honen helburua ez dela inor seinalatzea edo delatatzea argitu dute Berbaroko ordezkariak. Egoera zein den aztertu eta konponbideak mahai gainean ipini gura dituzte. "Jaien antolakuntzan dabilzan eragileei laguntza eskaintzen diegu, edozertan laguntasuna behar izanez gero gugana jozteko, denon artean datu hauek aldatzeko", gaineratu dute.



*Jai Batzordeak antolatutako ekintzak edo Jai Batzordearen aterkipean beste eragile batzuk antolatutakoak.





Jardunaldiak, Euskal Herriko herri eta hiriguneetara heltzeko "apustu garbia" egin dute.

Durangok Euskal Herriko Mugimendu Feminista aterpetuko du asteburuan

Datozen hamar urteetako erronkak eta lan ildoak garatuko dituzte Jardunaldi Feministetan. Zazpi herrialdeetatik heldutako kolektiboak eta 3 bat mila lagun batuko dira gutxi gorabehera

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Mugimendu Feministak Euskal Herrian duen hitzordurik azpimarragarrienetarikoa bat aterpetuko du Durangok. Asteburu honetan, Jardunaldi Feministek herriko hainbat bazter hartuko dituzte, eta dena prest dute dagoeneko. Zazpi herrialdeetako norbanako, elkarte eta kolektibo feministak dira bertaratzeak. 3 bat mila lagun guttira. Zenbaki horiei gehitu behar zaizkie hiru egunean garatuko dituzten tailer, hausnarketa eta eztabaidak. 40 ponentzia eta 80 tailer egongo dira, besteak beste.

Jardunaldiak barikutik domekara iraungo dute eta etorkizunera begirako bost lan ildo eztabaidatuko dituzte: dekolonitatea, bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetzak, gorputzak eta sexualitateak, indarkeriarik

gabeko bizitzak eta mugimendu feministaren erraiak. Ondorengo urteetan, Euskal Herriko "herri eta hiriguneetara" hedatuko dute Durangon landutakoa.

**Turkiaren inbasioak
Kurdistango delegazio
baten etorrera oztopatu
duela salatu du udalak**

Mundutik Euskal Herria

Euskal Herriko eragileez gainera, Munduko beste hainbat txokotatik ere helduko dira aktibista feministak: Kataluniatik, Galiziatik, Guatemalatik, Nikaragutatik, Berlindik, Londresetik eta Madriletik, besteak beste. Durangoko Udalak

Jardunaldietara etortzeko gonbita egin zion Kurdistango delegazio bati, baina, salatu duenez, Turkiaren inbasioak haien etorrera oztopatu du.

Jarrera "antifaxista"

Hego Euskal Herriko mugimendu feministak 40 urte inguru daramatza lanean. Diktadura amaituta hasi zuen bidea, eta hamar urterik behin antolatu izan ditu Jardunaldiak. Diktadura osteko lehenengotariko topaketan, 3 bat mila lagun batu ziren. Kopuru hori zertxobait jaitsi da azken hamarkadetakoa Jardunaldietan, baina garai bateko kopurua gaingituko du aurtengoan. Bozaramaileek diotenez, "antifaxismoaren amorrua" antolatu dira, eta halaxe antolatzen segituko dutela aurreratu dute. Auzolana ere badute ezaugarri.

Durangoko Udala tren geltoki zaharrari buruzko galdera "zehatza" eta "anbiguotasunik bakoa" lantzen dabil

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak urtea amaitu baino lehen tramitatu gura du tren geltoki zaharraren proiektuari buruzko herri galdeketa. Baina tramitazioari ekin aurretik, dena ondo lotuta utzi gura dute, galderak izan ditzakeen oztopo juridikoak saihesteko. "Ez dugu gura tramitazioa egin eta hortik hiru hilabetera galdera atzera bota diezaguten", azaldu du Aritz Bravo EH Bilduko zinegotziak. Alde horretatik, galdera "ahalik eta zehatzena", eta "anbiguotasunik bakoa" izatea gura dute. Erabaki plataformak honako galdera hau egitea proposatu du: "Ados al zaude gaur egun onartuta

dagoen proiektua (PERI Ferrocarril) bertan behera utzi eta durangar denon parte hartzez eta Durangoren beharrazanez erantzun den proiektu bat egiteko prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzearekin?". Hain zuzen

Erabakik gogoratu du ez duela proiektu zehatzik babesten, eta bere lana galdeketa bultzatzea dela

ere, galdera hori du aztergai udalak. Plataformako kideak gainerako alderdiekin ere batuko dira hurrengo egunetan.

Jai arrakastatsuak lortu izanaren atzean, herritarren lankidetzaren egon dela azaldu du Durangoko Udalak

EAJk ere positiboki baloratu ditu jaiak, baina gobernu taldeak "diskriminatu" egin dituela adierazi du. Txupinazoko irizpideak aldatu direla ere salatu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gobernu taldeak herritarren lankidetzaren ipini du jaien arrakastaren erdigunean. Pentsiodunen eta Zaballarra eskolako umeen txupinak ere "emozioz beterikoak" izan direla adierazi dute, eta ekitaldirik arrakastatsuenen artean jarduerak gastronomikoak, mozorro eguna eta Durangoko artistek izan duten tokia aipatu dituzte. Aurtengoan, jai inklusiboagoak lortzeko bidean aurrerapausoak eman direla ere azaldu dute. Puntu negatibo modura, emakume batek salatutako sexu erasoak aipatu dute.

"Diskriminazioa"

Jaien balantze positiboa partekatu arren, EAJk udal gobernu taldearen aldetik jasotako "diskriminazioa" salatu du. "Tratua ez da egokia izan. Informazio falta egon

da askotan, eta horrek gure parte-hartzea murriztu du ekitaldi batzuetan", azaldu du Mireia Elko-roiribek. Txupinazoei ere egin die erreferentzia. Txupineroak aukatzeak irizpideak aldatzea egotzi dio gobernu taldeari: "Orain arte, Jai Batzordeak aukeratu izan ditu, baina, aurtengoan, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak beste proposamen bat egin dute. Ez dugu ezer aurtengo txupineroen aurka, baina ez dugu begi onez ikusten aurtengo Jai Batzordeak bildutako proposamenak alboratu izana".

Txosnetan azaldutako pankarta batzuek mezu politiko "iraingarriak" zituztela eta udal eraikinetan zintzilikatuta zeudela azaldu du Elko-roiribek: "Harrituta eta kezkatuta gaude pankartekin. Badirudi hau guztia normala zaiola gobernu taldeari".

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko urriaren 31a
17. urtea - 782. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

2015 **Bikam**
EUSKAL HERRIKO
KOMUNIKABIDEAK

PEFC
Produktu hau
bainagarria da
naturaren materialak
erabiltzeko eta
Bosko Kudeaketa
Sistemaren
jarraitzea duela
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Garaiko dantza ikastaroetako partaide kopurua handitu gura dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Dagoeneko hainbat garaitarrek eman dute izena dantza ikastaroetan parte hartzeko, baina taldeak guztiz osatu barik daude oraindino. Antolatzaileen asmoa talde bi osatzea da. 8-10 herritarrek eman dute izena, baina kopurua handitu gura dute taldeok osatzeko. Edozelan ere, ikastaroek aurrera segituko dutela segurtatu dute antolatzaileek. 695787439 telefonoan eman daiteke izena. Aretoko dantzak, boleroak eta dantza karibearrak irakatsiko dituzte ikastaroetan.

Erabilera anitzeko gunearen gaineko ordenantza aho batez onartu dute

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Erabilera anitzeko gunearen funtzionamendua erregulatzen duen ordenantza aho batez onartu zuten azken udalbatzarrean. Orain, alegazioak ipini ahal izateko epealdia hasiko dute. Ordenantzak zehazten du eraikina nortzuek erabili dezaketean eta zeintzuk diren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak. Esaterako, ezingo da gunea erabili irabazi asmoa duten ekimenak egiteko.

“Gau hau argiagaz eta iluntasunagaz jolasteko aproposa da, susto eta bihurrikerietarako gaua”

Iurretako Maiztegi eskolak eta Plazaratu herri dinamikak Gau Baltza antolatu dute, gaurko, Aita San Migel plazan. Ume, gazte zein helduentzat kalabaza eta mozorro tailerrak antolatu dituzte, ondoren, 20:00etan, ibilbide baltza egiteko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Argiak amatatuta, kandlek argitutako Gaba Baltza ospatuko dute Iurretan lehenengoz, eta etxean aurkitutako arropa zaharrekin mozorrotuta irtetera gonbidatu dituzte herritarrak. Maiztegiko irakasle Larraitz Zarrabeitiagaz, Plazaratuko Maitane Totorikagaz eta Guraso Elkarteko Alaitz Gerediagagaz egon da ANBOTO.

Zelan sortutako ekimena da?

Larraitz Zarrabeitia: Kontsumoagaz oso lotuta dagoen Halloween jaia sartu digute, modu zakarrean, eta urtero esan dugu zerbait egin behar genuela. Egia esan, Euskal Herrian ere ospatu izan da desitxuratu egin den jai hau. Bada, aurten, Gau Baltza antolatu dugu. Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatuta, Topaguneak emandako ikastaro batean beste herri batzuetako esperientziak ezagutu genituen, gure aurrekoengandik jasotako testigantzak, eta informazio horregaz aurrera egin dugu.

Neska-mutilek duten irudia aldatzea du helburu Gau Baltzak?

L.Z.: Jai hau geurea dela gogorarazi gura izan dugu. Ez da saltokietatik edo telebistatik datorkigun jaia.



Maiztegin hainbat jarduera landu dituzte ikasleekin. Gaur, antzinako kontakizun bat kontatuko dute liburutegian, ilunetan.

Euskal Herrian eta beste leku askotan, urtaroeekin lotuta egin izan den jaia da. Baina belaunaldietako transmisio horretan galdu egin da. Era berezian girotuko duzue plaza.

Maitane Totorika: Kandlek markatutako bidea egingo dugu, 20:00etan. Plaza kalabazekin

atonduta, han istorio bat kontatuko dugu. Horretarako, kalabaza eta mozorro ikastaroak antolatu ditugu, 19:00etan. Sorpresadun gaua izango da.

L.Z.: Jai hau argiagaz eta iluntasunagaz jolasteko aproposa da, susto eta bihurrikerietarako gaua da.

Zelan ospatzen zen lehen gaurko gaua Euskal Herrian?

L.Z.: Batutako testigantzetan, bide bazterretan ipinitako kalabazak ageri dira, barruan kandela bat zutela. Neska-mutilen arteko jolasak egiten ziren, elkarri sustoak emateko.

Elorrioko Udalak diruz lagunduko ditu herriko nagusien menuak

Programa urrian ipini zuten martxan, eta elorriarrek 2020ko maiatzaren 31ra arte erabili ahal izango dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zahartze aktiboa mantentzeko asmoz, eguneko menua herriko zenbait jatetxetan kontsumitzen duten Elorrioko 80 urtetik gorako pertsonak diru-laguntza izango dute. Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, herriko bost jatetxetan eskaintzen dituzten eguneko menuen zenbatekoaren parte bat lagunduko dute diruz. Batzokian, Gurian, Katxarron, Kotxeron eta Tangerren, hain zuzen ere.

Ohar bitartez azaldu dutenez, erabiltzaile mota bi egongo dira: *a* erabiltzailea eta *b* erabiltzailea. Erabiltzaile mota horiek pertsona bakoitzak jasotzen duen pentsioaren eta familia-unitateko pertsona kopuruaren arabera zehaztuko dituzte. *A* erabiltzaileak 6 euroko laguntza jasoko du, gehienez,

menu bakoitzeko. *B* erabiltzaileak, ostera, 4 euroko laguntza.

22 menu pertsonako

Bestalde, Elorrion erroldatuta egotea beharrezkoa dela eta programak irauten duen bitartean

Batzokiko, Guriako, Katxarroko, Kotxeroko eta Tangerreko menuak lagunduko dituzte diruz

pertsona bakoitzeko 22 menu lagunduko dituela jakinarazi du Elorrioko Udalak. Programa hau urrian hasi zen eta 2020ko maiatzaren 31ra arte egongo da martxan.

Jose Antonio Gisasola 'Zelai' omenduko dute Mallabian

Zapatu arratsaldean izango da, Mallabiko pilotalekuan



Jose Antonio Gisasola, Karmele eta Jon seme-alabak ondoan dituela.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Jose Antonio Gisasola 'Zelai' (Mallabia, 1958) harri txikien historiako harri-jasotzailerik handienetarikoa omenduko dute zapatuan, Mallabiko Udalaren eta Txondor Herri Kirol taldearen ekimenez.

Lehenengo, Alvaro Bermejo idazleak idatzitako *Zelai* ize-neko liburua aurkeztuko dute 13:00etan, Kontzeju zaharrean.

Omenaldi ekitaldia 17:30ean hasiko da, pilotalekuan. Goi mailako herri kirol erakustaldiak egongo dira. Aizkoran, Zaldia, Mugerza, Atutxa, Larrea, Txikia eta Zelai IV.a arituko dira. Harri jasotzen, Telleria, Ostolaza, Eizmendi, Izeta II.a, Izeta IV.a, Goenatxo III.a, Urruzuno, Goikoetxe, Zelai Luze, Ureta, Uroe, Zelai III.a, Zelai V.a eta Jimenez arituko dira.

Zerga eta tasak %1,5 igoko dira Iurretan, 2016tik izoztuta egon ondoren

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Datorren urtean, zerga eta tasak %1,5 igoko dira, hiru urtean izoztuta egon ondoren. EAJren aldeko botoekin onartu dituzte 2020rako Ordenantza Fiskalak, "aurrekontuaren oreka bermatzeko". Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "gastuen zenbatekoa eta zerbitzu publikoen kostua %6 igo dira azken urteotan. Baina udalak ez ditu zergak neurri berean igo". EH Bilduk kontra bozkatu du, uste delako igoera ez dagoela nahikoa justifikatuta. Igoera mailakatua egin daitekeela gaineratu dute.

Ondasun Higiezin Zergan ere izan dira aldaketak. Besteak beste, EH Bilduk proposatuta, %25eko gainkargua gehituko da zerga sortzen den unean hutsik dauden etxebizitzetarako.



Gerra Zibileko panteoian dago harlauza, buelta emanda.

Abadiñoko hilerrian aurkitutako ikur frankista kendu egingo dutela jakitera eman du udalak

Gerra zibilaren garaiko panteoi bat dago hilerrian, eta bertako harlauza batean dago ikurra

ABADIÑO • E.H./M.Z.
Memoria historikoaren auzia Abadiñoko Udaleran heldu da. Asteon ANBOTOk aurreratu legeaz, ikur frankista bat dago Abadiñoko hilerrian, panteoi batean. Ikurrak urteak daramatza hilerrian, baina orain arte ezkutuan egon da.
Martitzenean egindako osoko bilkuran, Unzalu Salterain EH Bilduko zinegotziak frankismo garaiko ikurren azterketa egiteko eta horrelakoren bat egonez gero kentzeko eskatu zion gobernu taldeari. Garaizabal alkateak horren berririk ez zuela adierazi zuen, eta, ANBOTOr jakinarazi dionez, legea beteko dute eta, han adierazitako moduan, ikurra kenduko dute.

Hilerriko mantentze-lanen arduradunaren esanetan, tankera honetako ikur bakarra dago

Ikurra gerra zibilaren garaiko panteoi bateko harlauza batean dago. Harlauza hori buelta emanda dago, eta altxatu dutenean aurkitu dute. Hilerriko mantentze-lanak

egiten dituen arduradunak ANBOTOr jakinarazi dionez, tankera honetako ikur bakarra da hilerri osoan. Gainera, gerra zibileko panteoian honako testu hau ere irakurgai dago: *Anaiarteko gerrate negargarri baten hildako abadiñarren hilarria.*
Urrian, Gogora memoria institutuak ikur frankistak kentzeko ekimenen inguruko txostena kaleratu zuen. Txostenean, oraindino ere ikur frankistaren bat duten udalak zerrendatzen dituzte. Bertan, ez dago Abadiñon aurkitutako harlauzaren aztarnarik.

Udaleko lokalen erabilera araudia onartu dute Mañarian

Irabazi asmorik bako taldeek dohainik erabili ditzakete; irabazi asmoa dutenek 10 euro ordainduko dute orduko

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Joan zen asteko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten udalarenak diren eraikinen erabilera arautzen duen araudia. Orain arte, ez zegoen tankera horretako arautegirik indarrean.
Honako gela eta eraikinei eragingo die: udaletxeko bigarren solairuko hiru gelari, pleno aretoari,

liburutegi zaharrari zein berriari, gimnasioari eta kultur etxeari. Herriko elkarteek zein irabazi asmorik bako taldeek dohainik erabili ahal izango dituzte. Irabazi asmoa dutenek, oster, 10 euro ordaindu beharko dute orduko. Bestalde, udal materiala erabili gura dutenek 30 euroko fidantza ipini beharko dute.



Udalak 'Abadiño Ezagutzen' antolatu du, bosgarren urtez

ABADIÑO • A.M.
Abadiñoko ikasleen eta familien artean herria eta bertako toponimia hobeto ezagutzeko, udalak *Abadiño Ezagutzen* lehiaketa antolatu du beste urte batez. Lehiaketak bosgarren edizioa du aurtengoa. Ikasleek hogeita lau galderako

galdetegi bati erantzun beharko diote. Abadiñoko Toponimiari, lexikoari eta bestelako gaiei buruz erantzun beharko dute. Zozketan parte hartu ahal izateko, Lehen Hezkuntzako ikasleek hamasei galdera erantzun beharko dituzte ondo; Bigarren Hezkuntzakoek hamazortzi erantzun beharko dituzte zuzen. Sari banaketa abenduaren 3an izango da, Euskararen Nazioarteko Egunekeo ekitaldian.

Ibilgailuen eta zaborren inguruko zergak igoko dituzte Otxandion

Gainerako zergarik gehienak izoztu egingo dituzte 2020rako



Ordenantza fiskalak aho batez onartu zituzten azken udalbatzarrean.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Otxandioko udalbatzarrean aho batez onartu dituzte 2020ari begirako ordenantza fiskalak. Zerga gutxi batzuk kenduta, gehienak bere horretan mantendu dituzte, tartean ondasun higiezinaren gaineko zerga, eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga.
Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga %0,97 igo dute. Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera igoera izan da. Bestalde, edateko ura hornitzeko zerbitzuagatik tasa zentimo bat igo dute metro kubikoko.

Zaborren tasa %4 igoko da
Azken igoera zaborren tasaren gainekoa da: %4 igo dute. Otxandio Gortealdeko Partzuergoan sartuta dago eta erakunde horretan igoera hori proposatu zuten, gaur egun zerbitzu defizitarioa delako. Igoera eta guzti ere, zerbitzu defizitarioa izaten jarraituko du eta Partzuergoko soberakina erabiliko dute kontuak parekatzeko, udal ordezkariak argitu dutenez.

Berrizko Udala Sarrigoitiko bidea konpontzen hasi da hile honetan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Iazko aurrekontu parte-hartzaileetan berriztarrek horrela erabakita, Berrizko Udala Sarrigoitiko bidea konpontzen hasi da. Prentsa ohar bitartez udalak jakitera eman duenez, hile honetan bertan hasi dira behar horiek egiten, eta Sarrigoitira doan bidea egokitu eta aglomeratu egingo dute. Bide horretan dauden puntu arriskuak zabaltzea eta bidea bera konpontzea da lan hauen helburu nagusia, eta baita errepidea berriro asfaltatzea ere, azaldu dutenez.
Bestalde, Berrizko Udalak azaldu du hiru hilabeteko epea izango dutela lan hauek egiteko. 85.207 euroko aurrekontua dute guztira.

Atxondoko nekazaritza eta artisautza azokako izen-ematea zabalik dago

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urtero legeaz, abenduko lehenengo domekan nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute Atxondon, eta dagoeneko zabalik dago azokan parte hartzeko izen-emate epea. Beraz, euren produktuak Apatamonasterioko plazan erakutsi edo saldu gura dituzten nekazari edo artisauak *azoka@atxondo.eus* helbidera idatzita edo udal bulegoetara joanda eman dezakete izena.
Bestalde, Atxondoko Udaletik jakinarazi dute azokaren ezaugarri nagusia artisau eta baserriko produktua dela, eta ez ganadu edo abere azoka. Hori horrela, ezingo da animaliarik erakutsi edo saldu abenduaren 8ko ferian.



Gremioen gida

anboto



Elektrizitatea

MARKIEGI

**ARGIZTATZEN
JARRAITZEN DUGU!**

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com



Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 Iturgintza

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak
ABADIÑO 944 071 791

 Zurgintza

ATERPE AROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Eraikuntza eta
birgaikuntza

ARRETXE GESTION
ERRAIBUNTZA ETA BIRGAIBUNTZA

TXALETA - TXOKOLA
FATKADA - BASERRIA
ETKEBIZITZA - TEILATUA
NABEA - ERATSEKETA
INPERMEABILIZAZIOA
MARMOIGINTZA - HARIGINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



“Argi dut hau ez dudala nigatik egin, euskaraz bizi gura dutenen eta bizi gura dugunon alde baina”

Hizkuntza eskubideak urratzen zirelakoan, Zornotzako udaltzain batek Arartekora jo zuen urtarrilean. Arartekoak arrazoia eman dio orain, eta udalak arazoari emandako erantzuna ere txalotu du. Udaltzainagaz berba egin du ANBOTOK



Udaltzainak Euskaraldiko Ahobizi ikurra ikusgai izaten du paparren egunero.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzan 28 urte beharrean daromatzan udaltzain batek urte askoan eman du hizkuntza urraketen berri, eta, azkenean, Arartekora jo du. Udal berriaren partetik kontuak hobetzeko borondatea dagoela dio.

Zergatik erabaki zenuen Arartekora jotzea?

Nagusiki, gugana etorri eta salaketa bat euskaraz ipini gura izan duten herritarren hizkuntza eskubideak urratu direlako. Adibidez, gertatu zaigu udaltzain batek edo-

zein salaketa euskaraz jasotzea, eta, gero, salaketa horri jarraipena gaztelaniaz egitea. Bestalde, barne mailan, udaltzaingoaren funtzionamenduan ere badira kontu gehiago. Administrazioak lan tresna asko gaztelaniaz ematen ditu (inprimakiak, udaltzainok darabilgun sistema informatikoa,...) Zer dela-eta ez ditu horiek euskaraz

"Igartzen dut gauzak mugitzen hasita daudela udalean, eta badagoela horretarako borondatea"

ere ematen? Herritarrak eurak ere kexatu izan zaizkigu. Euskararen erabilera plan bat dago indarrean. Hor jasotakoa baino ez dut hartu oinarritzat. Ez dut ezer ere asmatu. **Noiz kexatu zinen Arartekoan?** Urtarrilean jo nuen Arartekora, baina kontua atzeragotik dator. 2015eko otsaileko udalbatzan kexatu egin nintzen. Testu bat irakurri

nuen bertan. Inprimaki guztiak gaztelaniaz zeudela nioen. Urte askoan eman dut urraketen berri, eta, azkenean, urte hasieran Arartekora jotzea erabaki nuen. Hau, beraz, ez da egun batetik besterako erabakia izan.

Arartekoak arrazoia eman dizu zure kexetako askotan.

Puntu guztietan eman dit arrazoia. Eta, orain, udala beharrean dabil puntu horiei konponbidea emateko. Aitortu behar dut aldaketak egiten ari direla. Igarri dut gauzak mugitzen hasita daudela udalean, eta badagoela horretarako borondatea ere. Itxaropentsu nago, baina adi ere bai.

Zure lanpostuko urraketa baten berri eman duzu. Baduzu ausardiaz jokatu izanaren sentipenik?

28 urtean pauso asko eman ditut eta hau beste bat izan da. Dena dela, argi dut hau ez dudala nigatik egin, euskaraz bizi gura dutenen eta bizi gura dugunon alde baina. Herritarrak ere datozela gugana euskaraz. Guk euskaraz emango diegu zerbitzua.

Arartekoak dioenez, udalak konponbide "eredugarria" eman dio arazoari

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Udaltzainari arrazoia emateaz gainera, Arartekoak txalotu egin du Zornotzako Udalak arazoari eman dion erantzuna. Eskubide urraketak saihesteko, 6 puntuko protokoloa ipini du martxan. Besteak beste, paisaia linguistikoari eta herritarren-ganako harrera hizkuntzari buruzko arauak azaltzen dira. Lan tresnak (aplikazio informatikoa eta inprimakiak) ere euskaratzen ari dira. "Arrazoizko kexak dira. Urak, baina, hasita daude bere bidera itzultzen", diote udaleko Euskara Saitetik.

Zenbait hedabidetan agertutako informazioa "neurritik kanpoko" izan dela diote alde biek. Horietariko zenbaitetan adierazi da udaltzainburuak euskara ez jakiteagatik jo zuela udaltzainak Arartekora. Azken honek argi utzi du salaketa ez zela inoren aurkakoa izan, eta ez zuela udaltzainburuarengan oinarritu. Aurreko urteetan ez bezala, gaur egungo Zornotzako udaltzainburua euskalduna da.



Uztailan ere mobilizazioak egin zituzten. irudian, Abadiñoko kiroldegiko langileak.

Eskualdeko kiroldegi batzuk itxita daude lanuzteengatik

Bizkaiko lan hitzarmena eguneratu gura dute. Azaroaren 10era arte egongo dira grebak Durangaldeko kiroldegietan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko kiroldegietako langileek grebak hasi dituzte Bizkaiko kiroldegien lan hitzarmena eguneratu dadin eskatzeko. Dagoeneko igarri da eragina. Abadiñon, esaterako, Astolako kiroldegia itxita egon da egunotan, eta beste horrenbeste gertatu da Elorriokoagaz. Berrizen, bestalde, hainbat langilek bat egin dute grebagaz, baina kiroldegiak atek zabalik izan ditu. Negoziazioen

emaitzak aldatu ezean, lanuzteak azaroaren 10era arte egongo dira indarrean.

ELA, UGT, LAB eta CCOO sindikatuek deitu dute grebara. Patronalaren aldetik "blokeoa" jasan dutela diote, eta hainbat enpresa negoziazio bileretara ez direla agertu salatu dute. "Egoera larria da. Enpresak sektoreak dituen ahuldurak baliatzen ari dira mobilizazioak zigortzeko", adierazi dute ohar bateratu batean.

Irudi ia magiko bat Anbotoko mendilerroan, Kataluniako zigortuei elkartasuna adierazteko

Linterna eta frontalak hartuta, Durangaldeko hainbat herritar Anboto eta Alluitz mendiak lotzen dituen mendilerroan elkartu ziren bariku iluntzean, elkartasun argi izpiak sortzeko



Anbotoko mendilerroa argizatuta.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Eskualde osoko hainbat menditalde eta herritarrek mendira jo zuten bariku iluntzean, Anboto eta Alluitz batzen dituen mendilerroa argitzeko asmoagaz. Kataluniako epaian zigortutakoei babesema-

teko egin zuten ekintza. Mendilerroan bata bestearen ondoan ipini, eta, ilunabarrean, 20:00 aldera, linternak piztu zituzten. Behean, Anbotoa begira zeuden hainbat herritarrek irribarrez eta zirraraz hartu zuten ezohiko irudia. Gure

Eskuk deituta, Euskal Herriko beste hainbat txoko-bazter ere argiztatu zituzten egun berean: Txindoki, Karakate eta Tologorri mendiak, Gaztelugatxe, Garraitx uhartea (Lekeitio) eta Debako hondartza, besteak beste.

Atxondoko, Zaldibarko, Iurretako eta Durangoko ikastetxe banatan sukaldea ipiniko dutela-eta, pozik azaldu da Berton Bertokoa

Hezkuntza Sailak eskola elikadurarekiko joera aldatu du. Eskoletan sukaldeak ipiniko ditu eta jangelen kudeaketa eredua eguneratzeko epea zabaldu du



Hezkuntza Sailaren joera aldaketa itxaropenez hartu arren, dena amaitutakoan erlaxatuko direla diote dinamikako kideek.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Berton Bertokoa dinamikako kideak pozik agertu dira Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskola elikadurari dagokion arloan hartu duen norabide berriagaz. Jarrera aldaketa horrek neurri bi dakartza besapean. Batetik, eskoletako jangelak kudeatzeko araudi berria idazteari ekingo dio Jaurlaritzak, eta horrek leiho bat zabaldu dezake elikagaien jatorriari eta esleipen politikari buruzko irizpideak ipintzeko. Bestetik, 2019-2023 Azpiegitura Plana ere onartu du Hezkuntza Sailak, eta, horren arabera, sukaldeak ipiniko ditu Durangaldeko lau ikastetxetan.

Zabalarra eskolako Isa Gonzalez pozik agertu da aldaketa haizeagaz. "Orain hiruzpalau urte hasitako eskakizunak hasi dira fruituak ematen. Guk eskatzen dugun elikaduraren norabidean, lehenengo harri bat ezartzen dute neurri hauek", adierazi du.

Kudeaketa eredua

Legebiltzarrean aho batez onartu dute jangelen elikadura-kudeaketa egokitzea, eta, orain, Jaurlaritzak lau hilabeteko epea du araua idazteko. Horretarako, Hezkuntza arloko eragileekin batuko dira, eta bertan egongo da, besteak beste, Berton Bertokoa dinamika. "Hor egongo gara gu ere. Gure iritzia

"Eskatzen dugun elikaduraren norabidean, lehenengo harri bat ezartzen dute neurri hauek"

emango dugu. Eskola jangelen kudeaketa (erosketak egitea, prestakuntza planak egitea...) administrazio publikoak egin beharrekoak direla aldarrikatuko dugu, kudeaketa horrek publikoa izan behar duela. Jaurlaritzak berak egin dezake kudeaketa hori, baina guk Durangaldean egiteko aukera

ere leiho bat zabaldu gura luke dinamikak. Hein handi batean, umeek eskoletan jaten dutena eskualdeko ekoizleek landutakoa izatea gura dute.

"Jangelen kudeaketa administrazioak egin beharrekoa dela aldarrikatuko dugu"

Sukaldeak eskoletan

Jangeletako sukaldeei dagokien ere, bada zer esanik. Azken 20 urteetan, ikastetxetatik sukaldeak kentzeko joera izan du Jaurlaritzak, eta, orain, bestelako

irizpide bat hartu duela dirudi. 2019-2023 Azpiegitura Planean jasotzen denaren arabera, Zaldibarko eta Atxondoko ikastetxetan, eta Iurretako Juan Orobiogoitian eta Durangoko Zabalarren ipiniko dituzte sukaldeak. Azken asteotan, gainera, Jaurlaritzako arkitektoak Atxondoko, Zaldibarko eta Iurretako ikastetxetan izan dira jangelak ikuskatzen. Zabalarren oraindino ez. Jangeletan obrak egin beharko dituzte, bertan sukalde bana egiteko. Sukaldeak egiteko erabakiagaz ere pozik dago Berton Bertokoa, baina dena egindakoan lasaituko direla nabarmendu dute: "Ez gara erlaxatuko lanen epeak eta dirupartidak paper gainean ikusi arte. Are gehiago, dena amaitutakoan lasaituko gara", dio Azpirik.

Martxan dira Zaldibarko aurrekontu parte-hartzaileak

Udalak 25.000 euro gorde ditu herritarren proposamenetarako; azaroaren 20ra arteko epea dago

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko Udalak 25.000 euroko diru partida gorde du, herritarrek horiekin zer egin erabakitzeko. Proposamenak azaroaren 20ra arte aurkeztu ahalko dira. 16 urtetik gorako zaldibartarrek egin ditzakete proposamenak, norbanako edo elkarte lez. Proposamenek "udalaren jardunaldiagaz" eduki behar dute zerikusia, Jose Luis Maiztegi alkatearen esanetan: "Proposamenak udalaren eskumenekoak izan behar dira, interes orokorrekoak

izateaz gainera. Bestalde, teknikoki eta ekonomikoki egingarria izan behar du. Ez dira onartuko partidaren laurdena baino gehiago kostatuko duten proposamenak". Abenduaren 16an batzar zabala egingo da, aurkeztutako proposamenak bozkatu eta horietariko hamar aukeratzeko. EH Bilduk ekimenaren berririk jaso ez izana salatu zuen urriko bilkuran. "Errespetu falta iruditzen zaigu gu kontuan ez hartzea", salatu zuen Eneritz Azpitarte zinegotziak.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

K. LANBIDE	IKASTAROAK	ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK		
19480022	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70
19480023	Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan (UF0129)	30
19480024	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea (UF0130)	50
19480025	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak (UF0131)	50
FABRIKAZIO MEKANIKOA		
19480011	Piezak txirbil-harroketara bidez egiteko cnc programak egitea (UF0879)	80
18480168	Txirbil-harroketara bidezko mekanizazio prozesua (TORNO ETA FRESA) (UF0881)	80
18480172	Fabrikazio mekanikoko produktuen automatismoen diseinua (UF0450)	50
19480009	Soldadura karbono-altzairuzko xafia eta profilez estalitako elektrodoekin eta errutilozko elektrodoekin (UF1623)	90
19480010	Soldadura karbono-altzairuzko xafia eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin (UF1624)	90
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
19480015	Automatizazio industrialeko sistemetan matxurak diagnostikatzea eta mantentze zuzentzailea egitea (UF2238)	90
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA		
19480013	Linea automatizatuen sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (UF0624)	70
18480170	Linea automatizatueta funtzionamenduaren programazioa eta kontrola (UF0626)	70
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
19480102	COBOL analista programatzailea (IFCD003PO)	210
19480103	Microsoft Azuren soluzioen inplementazioa IT azpiegiturretan (IFCD20)	100
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK Langabetuak (praktikak enpresan)		
19480016	Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa (ELEM0311)	390

Informazioa eta izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)
www.fpzornotza.com (Enplegurako prestakuntza ikastaroak)

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com

Botila, erdi beteta eta erdi hutsik: feminismoak egitura osatua ageri du Otxandion, baina sendotu bako mugimendua da Abadiñon eta Atxondon

Feminismoari lotutako aktibistak egon badaude Atxondon eta Abadiñon, baina egitura antolatu batean bildu barik daude oraingoz. Data seinalatueta aktibatzen dira nagusiki, eta, etorkizunean, egitura sendoago bat sortzeko ahotsak ere igartzen dira herri mugimenduan. Otxandion, Bagaizan kolektiboak zabaltzen du feminismoa herriko kaleetara. Durangaldeko mugimendu feminista aztertzen duen sailaren azken atala da honakoa

OTXANDIO

Feminismoaren ikuspegi osatua



BAGAIZAN taldea

MATXISMOAREN ONDORIOAK AZTERTZEN

- **Sorrera urtea:** 2015.
- **Helburu nagusia:** indarkeria matxista kaleetan salatzea. Aldarrikapen feministak kaleratzea. Feminismoaren autoformakuntza bultzatzea jabe-kuntza indartu dadin. Aurten, indarkeria matxistaren logika eta ondorioak herrian zelan kudeatu lantzen dabilta.
- **Ekintzak:** Martxoaren 8ko, ekainaren 28ko eta azaroaren 25eko ekitaldiak antolatzea. Maitasun erromantikoari

eta transexualitateari buruzko tailerrak. Autodefentsa tailerrak, film emanaldiak, antzerki emanaldiak, "biolentzia matxista" ulertzeko formakuntza. Udalean berdintasunaren inguruko ekarpenak egiten dituzte. Jaietan eraso matxisten kontrako telefonoa ipintzen dute.

- **Partaide kopurua:** modu aktiboan, 5-6 inguru. Beharra dagoenean, beti dago laguntzeko prest dagoen jendea
- **Bilera maiztasuna:** hamabostean behin, normalean. Beharizanen arabera.
- **Kontaktua:** ez dute sare sozialik.



Jendetzak salatu zuen 2014ko abenduan Abadiñon izan ziren hilketak matxista biak. ARGAZKI PRESS.

ATXONDO

Aldarrikapen feministak data seinalatueta

ATXONDO • EKAITZ HERRERA

Atxondon, gaur gaurkoz, eta bere horretan, ez dago bere burua feministatzat definitzen duen kolektiborik. Horrek ez du esan gura, baina, data seinalatueta bertako herritarrek diskurtso feminista bategaz aktibatzen ez direnik. Dударik ez dute egiten behar denean elkartu eta aldarrikapen feministak kalera-tzeko.

Gainerakoan, Atxondoko Lamiak emakume taldeak Berdintasuna lantzen du.

ATXONDOKO LAMIAK ELKARTEA

BERDINTASUNAREN LANKETAN

- **Sorrera urtea:** 2007.
- **Helburu nagusiak:** parekidetasuna lantzea. Emakumeei dagozkien eskubideak garatzea. Kide guztiak emakumezkoak dira, baina gizonezkoengana ere zabaldu gura dute.
- **Ekintzak:** ahaldunderako tresnak eskaintzea. Jokabideak

aldu eta kontzientzia hartzeko tailerrak. Urtean behin, irteera kulturalak. Batzar orokorra ere urtean behin egiten dute.

- **Partaide kopurua:** 26 bazkide. 10-15 kide aktibo.
- **Kontaktua:** atxondokolamiak@hotmail.com

ABADIÑO

Elkarte feminista bat sortzeko ahaleginak egin diren arren, emakume taldeak dira nagusi

Abadiñoko emakume taldeak, herriak bere barruan duen soziologia anitzaren isla

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Udaleko Berdintasun Sailetik abiatutako talde bat, Gaztetxe-ko ikastaro batetik hasitako beste bat eta Abadiñora bizitzera etorritako herritarren beste talde bat. Hiru emakume talde horiek Abadiñok dituen soziologia anitzak islatzen dituzte. Bakoitzak, beretik, herritarren beharrianak asetzen ditu.

Bestalde, herriko zenbait ekintzaile feministak Abadiño-ko Txoko Feminista bat sortzeko agertu izan dituzten asmoak gehitu behar zaizkie hiru talde horiei. Oraingoz, ez dute egitu-

ra antolaturik, baina, tarteka, bertako herri mugimenduan entzuten dira behin betiko egitura bat sortzeko ahotsak.

Dena dela, aldarrikapenak egin behar direnean, ahobizarririk barik kaleratzen dituzte mezu feministak. Tamalez, egon da horretarako premiarik. 2014ko abenduan Traña-Matiena auzoan izandako hilketak matxista biak dira horren erakusle. Baita, oraintsu, herriko hiru emakumeri sexu erasoak egitea leporatuta kartzelaratu duten herritarren auzia ere.

KAKORRATZ LANTEGIA

GAZTETXEAN SORTU, ETA HERRIRA ZABALDU

- **Sorrera urtea:** 2015. Gaztetxe-ko ikastaro modura sortu zen, baina izaera propioa duen taldea da gaur egun.
- **Helburu nagusiak:** kakorratz eta josketa ikastaroa eskaintzea. Emakumeei eragiten dieten gaiak lantzea. Data seinalatueta parte hartzen dute.
- **Izaera:** talde heterogeneoa. Adin nagusiko emakumeak zein bospasei urteko umeak elkartzen dira. Herritarrek integratzeko tresna ere bada.
- **Partaide kopurua:** aldakorra.
- **Bilera maiztasuna:** eguazterno, Txanporta kultur etxean, 18:00etan.

AMALURRA ELKARTEA

HEMENGO ZEIN HANGO IZAN, BADAGO TOKIA

- **Sorrera urtea:** 2018.
- **Helburu nagusia:** bertan jaio-tako zein Abadiñora bizitzera etorritako herritarren arteko topaleku bat eskaintzea. Emakumeak hezteko gune atsegin eta kulturala sortzea. Herritar berrien integratzeko tresnak ematea.
- **Ekintzak:** sukaldaritza eta gimnasia ikastaroak. Gaztelania eskolak helduentzat. Arabiera eskolak umeentzat.
- **Partaide kopurua:** 6 inguru, baina zenbait ikastarotan 20 izatera ailegatu dira.
- **Kontaktua:** mymounaelbouhali@gmail.com

ANBOTO AZPIKO DAMAK

BERDINTASUN SAILAREN HAZIA

- **Sorrera urtea:** 2004. Udaleko Berdintasun Saila sortu zen urte berean jaio zen elkarte
- **Helburu nagusia:** gizarteko ahalik eta arlorik gehienetan berdintasuna lantzea.
- **Egoera:** elkartearen lana bolada batez etenda egon eta gero, berriro ere indartzeko asmoa dute. Zuzendaritza batzordea berriro gura dute, belaunaldi gazteago baten laguntzagaz.
- **Partaide kopurua:** 6-8 modu aktiboan, baina, beharizanen arabera, boluntarioak ere baten zaizkie.
- **Kontaktua:** Helbide elektronikoa sortuko dute laster.



ANBOTO

Bazenekien...

Plateruena kafe antzokiaren 15. urteurrena urriaren 28an

Orain 15 urte, Landakoko erai-kin eraberrituak ateak zabaldu zituen. Ehunka herritarri esker-rak, Plateruena kafe antzokia inauguratu zuten. Berbaro euskara elkarteak bultzatu-tako proiektua herriko elkar-teentzako bizigune izateko bokazioz jaio zen. Harrezkero,

areto honek milaka ekitaldi hartu ditu. Euskararen eta kul-turgintzaren arnasmunea da. Argazki honek inaugurazio ekitaldiko une bat islatzen du. Ander Lipus jende artean agertzen da, eta Galder Gaz-telu-Urrutia momentu hori grabatzen. J.G.

Durangaldea asteen

Eskola materiala erosteko eta dutzak aldatzeko diru-laguntzak Zornotzan

Zornotza | Zornotzako Udalak hainbat diru-laguntza ematea onartu berri du. Lehenengoa eskolako materiala eskuratzeko laguntza izango da. Udalak azaldu duenez, 35.000 euro baino gehiagoko errentarik ez duten familientzat izango da. Bigarrena, ostera, bainuontzia kendu eta dutxa ipintzeko izango da. 300 eu-rotik 1.850 eurora bitarteko diru-laguntza izango da, eta 80 urte baino gehiago dituztenek eskuratu ahal izango dute.

Udalak eta Zornotzako LHIik herrian enplegua sustatzeko hitzarmena handitu dute

Zornotza | Udalak eta Zornotzako LHII erakundeak herrian en-plegu politikak sustatzeko hitzarmena sinatu dute. Ohar bitartez jakitera eman dutenez, udalak 16.200 euro inbertituko ditu arlo honetan, eta helburua da ekintzailatza profila duten zornotzarrei edo negozio baterako proiektua edo ideia dutenei babesia eman eta orientazioa eskaintzea.

Lanbide Heziketa zentroko ikasleak ‘I’m Bizi’ lehiaketan saritu dituzte

Iurreta | Iurreta Lanbide Heziketako elektronikako ikasleak I’m Bizi lehiaketan saritu dituzte. Aurkeztutako proiektuak 2. saria lortu du. Gaztedi Durangaldea hitzarmena sinatu duten Duran-galdeko udaletan errolatutako 16tik 29 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago lehiaketa, eta gutxienez hiru pertsonen osatuta-ko taldeek aurkeztu dute proiektua.

Bergarako 26 urteko gazte bat hil da Anboton, tontorretik 150 metrora

Durangaldea | Gaztearen familiak salaketa ipini zuen do-mekan Ertzaintzan, eta astelehen arratsaldean aurkitu zuten 26 urteko gazte bergararraren gorpua Anboton. Ertzaintzak jakitera eman duenez, Anbotoko tontorretik 150 metrora aurkitu zuten gaztea, Alluitz aldera.



Joan zen asteen, hiru lagun atxilotu zituzten Durangon, kokainagaz trafikatzeari leporatuta

Durango | Ertzaintzak 60, 54 eta 36 urteko hiru pertsona atxilotu zituen urriaren 22an, Durangon, drogagaz trafikatzeari leporatuta. Poliziak 600 gra-mo kokaina, dirua eta hainbat mugikor atzeman zituen opera-zioan. Ertzaintzak ohar bitartez jakitera eman duenez, ustezko

trafikatzaileak ibilgailu bitan mugitzen ziren herritik zehar, eta erosleekin hartu-emanetan ipini ondoren, auto barruan egiten zuten salmenta; baita leihotik ere.

Atxilotuak epailearen aurre-tik pasatu eta gero, 60 urteko gizona eta 54 urteko emakumea

espetxeratu egin zituzten, epai-leak hala erabakita. 36 urteko gizonezkoa baldintzapeko as-katasunean uztea erabaki zuen epaileak.

Ohar batean azaldutakoaren arabera, Durangoko Ertzain-etxeko agenteek udan hasi zi-tuzten ikerketa lanak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Durango Musika Hamabostaldia

MUSIKA
DURANGO : Azaroak 3

Leioa Kantika Koralak hasiko du egitaraua, domekan

Leioa Kantika Koralaren emanaldiagaz hasiko da, domekan, Durango 30. Musika Hama-

bostaldia. 2001ean jaio zen Leioa Kantika Korala, eta, gaur egun, 11tik 18 urtera bitarteko 45 neska-



Asteburuan izango da Arriolako '24 ordu digitalean'

IKUS-ENTZUNEOA | Aurten XIV. edizioa duen Arriolako Film Laburren Lehiaketa ezaguna azaroaren 1etik 2ra bitartean izango da. Antolatzaileek bariku

arratsaldean jakinaraziko dute lehiaketaren aurtengo gaia, eta, esaldia ezagutzera eman ondoren, parte-hartzaileek 24 orduko epea izango dute film labur bat

grabatzeko. Azaroaren 2an, zapa-tuan, Arriola antzokian eskainiko dituzte landutako film labur horiek. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Iaz, hamaika taldek parte hartu zuten film laburren lehiaketan. Orduan, *Eraldaketa* izan zen antolatzaileek emandako gaia, eta *itotzekotan, ur handitan* esaldia. Grabon taldearen *Celorrio* lanak irabazi zuen lehiaketa iaz.

Urriaren 31n

ABADIÑO izena ematea
Altzorraren bila antolatu dute Mendiolan, azaroaren 9rako, Abadiñoko Gaztiek ekimenaren barruan. Urriaren 31 da izena emateko azkenengo eguna. 2006tik 2009ra bitartean jaiotako umeentzako ekintza da eta Errota kultur etxean edo Mediatekan apuntatu daiteke. Informazio gehiago katamalion@gmail.com edo gazteria@abadino.org posta elektronikoetara idatzita edo telefono hauetara deituta: 654 78 97 09 / 94 466 94 20

IURRETA gau beltza
Erakusketa eta ipuin kontalariak, Maiztegi ikastetxean.
Kalabaza eta mozorro tailerra, 19:00etan, Aita San Migel plazan. Kalabazak, kriseiluak eta arropa eta trapu zaharrak eramateko deia egin dute.
Ibilbide beltza plazatik zehar, 20:00etan. Maiztegi eta Plazaratu dinamika.

Azaroaren 1ean

MALLABIA urriko jaiak
Nesken gomazko paleta zirkuitua, 12:30ean, frontoian.

Azaroaren 2an

ELORRIO irteera
Perretxiko bila irteera Oletara. Autobusak 08:00etan irtengo du Ferixa lekutik, eta, Atxondoko frontoian ere geldituko da, 08:15ean. Arratsaldean, Elorrioko kiroldegian, batutako perretxikoak sailkatuko dituzte Atxondoko Talde Mikologikoko kideek.

MALLABIA urriko jaiak
'Zelai'-ri omenaldia eta herri kirolen erakustaldia, 17:30ean, frontoian. Udalak eta Txondor herri kirol elkarteak antolatuta.



mutilek osatzen dute. Nazioartean prestigioa lortu duen abesbatzak Andra Mariko basilikan abestuko du, 19:00etan.

Abendura arteko egitaraua prestatu dute musika hamabostaldiaren urteurren borobila ospatzeko.

Kutsatzaile hormonalak izango dituzte berbegai, gaur, Durangon

HITZALDIA | *Kutsatzaile hormonalak: zer dira?* Iemapean, Marisatsa elkarteak berbaldia antolatu du gaur iluntzerako Durangon, udalaren eta Eko kontsumo federazioaren laguntzagaz.

Berbaldia *Hormona kutsatzaileetatik aske* kanpainaren barruan egongo da, eta Koldo Hernandez Ekologistak Martxan elkarteko kideak emango du. Pinondo Etxean izango da hitzaldia, 19:00etan.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

ZORNOTZA antzerkia
‘Xokolat’ (Teatro Paraiso), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 3an

DURANGO dantza
DantzaDantza, 18:30etik 20:30era, Landako kiroldegian. Udaleko Adineko Pertsonen Sailak antolatuta.

ELORRIO erakusketa
XVIII. Mikologia Erakusketa, 12:30ean, kiroldegian.

Azaroaren 3ra bitartean

DURANGO erakusketa
Ane Barraincuaren lanak daude ikusgai Ezkurdiko erakustaretoan. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako erakusketa.

Azaroaren 5ean

ZORNOTZA zinekluba
KINE zinekluba: ‘Maya’, 18:45etik 19:45era, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 1etik 3ra bitartean

DURANGO jardunaldiak
Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak, Durangon.

Azaroaren 7an

ZALDIBAR hitzaldia
Ipuinak eta emozio heziketa, Liburutegi zaharrean. Juan Carlos Alonso psikologo donostiarra izango da hizlaria. Antolatzaileek esan dutenez, izena eman behar da bertaratzeko.

Azaroaren 8an

ARRIOLA antzerkia
‘Ramper, vida y muerte de un payaso’ (Cancamisa Teatro), 20:30ean, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Quitamiedos’ (Kulunka Teatro), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 5etik 22ra

BERRIZ erakusketa
‘Munduko talderik onena, Athletic-en istorioak’ Barikuetan, 18:30etik 20:30era, Berrizko Kultur Etxean. Asteburuan ere zabalik dago erakusketa, kultur jardueren ordutegian.



Quitamiedos
Kulunka Teatrea
Azaroak 9, 20:00etan



Sagutxo tuntuna
Loraldia Jaialdiaren produkzio bat
Azaroak 17
12:00 – 17:30 - 18:30



¿Qué fue de Ana García?
Compañía Joven Pabellón 6
Azaroak 23, 19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UBALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



Azaroaren 24ra arte

IURRETA lehiaketa
ZALDAI mendi argazki lehiaketa. Zaldai mendi taldeak antolatu du eta azaroaren 24ra bitartean aurkeztu daitezke argazkiak, zaldai@hotmail.com helbide elektronikora. Sariak: 1: 150 euro, 2: 100 euro eta 3: 50 euro. Oinarriak: www.zaldai.eus webgunean.

Abenduaren 14ra arte

BERRIZ lehiaketa
XXI. Argazki Lehiaketa. Udalak antolatutako lehiaketa da eta abenduaren 14ra bitartean aurkeztu daitezke argazkiak, Berrizko Kultur Etxean. Sariak: 1: 250 euro eta 2: 200. Genero ikuspegiaren saria egon da: 200 euro. Oinarriak: www.berriz.eus webgunean.

Zinea

:: Durango ZUGAZA

• **La trinchera infinita**
barikua 1: 19:00/22:00
zapata 2: 19:30/22:30
domeka 3: 18:45/21:00
astelehena 4: 18:30
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

• **Terminator: destino oscuro**
barikua 1: 17:00/19:30/22:00
zapata 2: 16:45/19:30/22:30
domeka 3: 18:30/21:00
astelehena 4: 18:30/21:30
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

• **Parasitos**
barikua 1: 19:00
zapata 2: 19:30
domeka 3: 21:30
astelehena 4: 18:30
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

• **El silencio de la ciudad blanca**
barikua 1: 22:00
zapata 2: 22:30
domeka 3: 18:45

• **Grajaedon**
barikua 1: 16:45
zapata 2: 16:45
domeka 3: 16:30

• **Abominable**
barikua 1: 16:45
zapata 2: 17:15
domeka 3: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Lo que arde**
barikua 1: 20:00
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:00

• **Mascotas 2**
domeka 3: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Día de lluvia en Nueva York**
zapata 2: 22:00
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:15

• **Tabaluga y la princesa de hielo**
domeka 3: 17:00



“Oraingoan, lortu dugu Nebrashka denaren benetako espresioa izatea”

Nebrashkak Bilboko El Muellen aurkeztuko du 'Lawak' bere lan berria, azaroaren 8an; Ahotsenean ere eskainiko dute kontzertua, Durangoko Azokan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Astelehenero legez, entsegurako hitzordua du Nebrashkak. Lokale-ra sartu aurretik, Ander Bastida abeslariagaz berba egin dugu. Alain Asenjok (bateria), Gorka Muñozek (kitarra), Txerra Gonzalezek (gitarra) eta Markos Agirrek (baxua) osatzen dute Nebrashka.

Zer da 'Lawak'?

Sinplea da: lau abesti. Lan honetarako, beste modu batera lan egin dugu. Aurrekoa Bilbon grabatu genuen, Xanpegaz, asteburu batean, ordu piloa sartuta. Bizimian oraindino igartzen zen Yoko Outekiko lotura hori. Oraingoan, lortu dugu Nebrashkaren benetako espresioa izatea. Abesti gehiago ditugu, baina, azken finean, lan hau gue aurkezpena izatea gure genuen. Ilusio handiz egin dugun lana da.

Zuen kabuz grabatu duzue.

Bigarren hau lokalean grabatu dugu, apurka-apurka, entsegu orduetan, Txerraren ordenagailuagaz eta mikrofono batez. Burgosko lagun batek egin du masterizazioa. Modu honetara eginda, denbora asko behar da, batez ere Txerraren-tzat, lan tekniko handia egin du

eta. Baina, aldi berean, lasai egin dugu. Ez dugu neke sentsaziorik. Talde handiak zortzi astez edo bi hilez sartzen dira. Lasai lan egin dezakete estudioan, baina guk egun bitan egin behar dugu dena. Horrenbestez, gustura geratu gara horrela eginda.

Pertsonalki, melodikoagoa iruditu zait lan hau. Bilatzen zenuten zerbait izan da?

Era natural batean irten zaigu. Soinu gogorak egin arren, beti ahalegintzen gara melodia sartzen, oso melodiazaleak garela; mezu bat zabaltzen ere ahalegintzen gara, eta geure erara irteten zaigu. Rock&rollzaleak gara, baina melodiazaleak ere bagara. Zein talde zen jakin barik, gure musika entzun eta lagun baten bikotekideak Nebrashka zela asmatu zuen. Ask

“**'Lawak' gure aurkezpena izatea gura genuen; ilusio handiz egin dugun lana izan da eta gustura geratu gara**”

“**Beti dago ondo zure ingurunetik irten eta jende berriari zure musika erakutsi ahal izatea**”

poztu ninduen horrek. Talde melodikoa gara, baina ez hori bilatzen dugulako. Entsegu orduetan irteten dira horrelakoak, natural.

Sorreran, helburua urtean hiruzpailau kontzertu eskaintzea zela zenioten. Pozik egindako ibilbideagaz?

Gure helburua disfrutatzen jarraitzea da. Ez dugu helmugarik. Azaroaren 8an El Muellen joko dugu, Bilbon, adibidez. Beti dago ondo ingurunetik irten eta jende berriari zure musika erakustea. Maratoi bat egitea lakoa da hau guretzat, apurka-apurka helburuak lortuz.

Epe luzera begiratzen duzue?

Epe laburrera begira pentsatzen dugu, eta Bilboko eta Durangoko kontzertuak dira gure epe laburra. Gero gerokoak. 2020rako ez dugu ezer pentsatuta, datorrela etorri behar duena. Guk astelehenero entseatzeko jarraituko dugu.

Mocker´s durangarrekin abiatuko da Elorrioko XXX. Jazz eta Blues jaialdia

Azaroaren 14an izango da kontzertua, Ateneon, 21:30ean; 'Oreka Ahula' aurkeztuko dute

MUSIKA • A.M.

Beste udazken batez, Elorrio jazz eta blues doinuaz bustiko da, bertako jazz eta blues jaialdiagaz. Hiru hamarkadaren ondoren, jaialdiak ohiko filosofiari eusten dio: alde batetik, jazz eta blues doinuen eskaintza anitza edukitzea, eta, bestetik, Euskal Herriko zein nazioarteko joeren eraskulea izatea. Iaz lez, Durangaldeko talde baten emanaldiagaz hasiko da kontzertu sorta: Mocker´s hirukote gazteak *Oreka Ahula* aurkeztuko du Ateneon.

No-Land hirukoteak joko du bigarren kontzertua, azaroaren

15ean. Jazza oinarri hartuta, musika klasikoa, free jazz eta flamenko doinuak ere jorratzen dituzte. Egun bat geroago, azaroaren 16an,

No-Landek eta Christian Dozlerrek hilaren 15ean eta 16an joko dute, hurrenez hurren

Christian Dozlerrek eskainiko du kontzertua. Austriarra ibilbide luzeko artista da blues munduan. Zazpi disko atera ditu bere aldetik,

eta beste 30 baten parte hartu du. Bigarren asteburuan, Makala, Trizak eta Anthony Stelmaszack arituko dira.

Hiru gune

Azaroaren 23ra arte iraungo du jaialdiak, eta zortzi kontzertuk osatzen dute egitaraua. Azken urteetan, jaialdia Elorrio osora zabaltzea izan da antolatzaileen helburuetariko bat. Horrela, gaztetxean (Micky & The Buzz, azaroaren 24an) eta Portalekuan (Jon Gurruixaga eta Jimmy Bidarurreta, azaroaren 21ean) ere izango dira kontzertuak.



Mocker´s. SARA ESTEBEZ.



Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi

Paraiso konpainiak txokolate fabrika bilakatuko du Zornotza aretoa, zapatuan

'Xokolat' antzezlanaren taularatuko dute, 18:00etan; antzerki obra hau Europako proiektu batean landu zen

ANTZERKIA • A.M.

Gasteizko Paraiso antzerki taldearen obra hau erloju suitzar batek lege funtzionatzen duen txokolate fabrika batean sortutako kimikan oinarritzen da. Fabrika horretan, Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi aktoreen bidea gurutzatuko da: bata errutina maite du; besteak bere begirada kurioso eta dibertigarria kutsatu gura dio. Euren elkarbizitzak amaiera emango dio fabrikako monotoniari, eta hor sortzen diren pasarteak publiko bereganatuko dute. Izan ere, antzezlanaren familia osoarentzat da, etxeko txikienentzat zein nagusientzat gozagarri. Hain zuzen ere, gozotasun horren

ondorioz abiatuko da abentura: fabrikaren egiten duten txokolatea probatuta, protagonistek bidaia bati ekingo diote. Bidaian zehar txokolatea usaindu, dastatu eta ikertuko dute, eta beragaz jolastuko dira. Zapatuan izango da obra, 18:00etan, euskaraz. Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi dira aktore protagonistak, eta Ramon Mollins arduratu da zuzendaritza lanez.

40 urteko ibilbidea

Gasteizko Paraiso antzerki taldeak lau hamarkadako ibilbidea du, eta urte hauetan guztietan, batez ere, haurrentzako eta gazteenentzako antzerkigintzan berezitu du bere lana.



'Marrazkitik harago. Figura eta paisaia' erakusketa.

'Marrazkitik harago. Figura eta paisaia' erakusketa aste bi gehiago egongo da Zornotzan

Bosteko erakusketa ibiltaria azaroaren 8ra arte egongo da ikusgai, Zelaieta zentroan

ARTEA • A.M.

Bosteko 2019 erakusketa ibiltariak *Marrazkitik harago. Figura eta paisaia* izenburua du aurten. Azaroaren 8ra arte egongo da ikusgai, Zornotzako Zelaieta zentroan. Ibon Garagarza komisarioak kudeatu du erakusketa, eta giza figurak, gorputzak eta inguruneak paisaia-gaz duten hartu-emanak jorratzen dute bertako obrek. "Marrazkiak berebiziko garrantzia du erakusketan, formatu ertaineko lanak

nabarmentzen dira, eta bestelako bide batetik jorratzen dira, hala nola argazkigintzatik, eskulturatik

Gentz del Valleren, Mertxe Perizen eta Sonia Ruedaren lanek osatzen dute erakusketa ibiltaria

eta margolaritza", azaldu zuten erakusketaren antolatzaileek.


Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako erakusketa da, eta Leioan eta Basaurin egon ondoren heldu da Zornotzara. Azaroaren 8ra arte egongo da bertan. Ondoren, Arrigorriagara eta Getxora eramango dute.

Igor Garagarza, komisario

Garagarzak kudeatuta, Gentz del Valleren, Mertxe Perizen eta Sonia Ruedaren artelaneak osatzen dute erakusketa.

Oier Zuñiga ilustratzaile iruindarrak egin du 54. Durangoko Azokako irudia

Egileak Azokaren ekosistema osoa irudikatu gura izan du; 'Osorik DA!' da aurtengo leloa



Oier Zuñiga eta Nerea Mujika Azokako kartelagaz.

AZOKA • ARITZ MALDONADO

Oier Zuñiga ilustratzaileak (Iruñea, 1986) Durangoko Azokaren ekosistema osoa irudikatu gura izan du kartelagaz, eta, horretarako, lau zatitan bereizi du: burua (sormena), bularra (zabaldur, erakutsi), gerria (hartu eta eman), eta hankak (akzioa eta mugimendua). "Ekosistema batean dena dago lotuta, konektatuta. Proposatutako irudian ere bai", azaldu zuen irudia. Nerea Mujika

Zuñiga: "Ekosistema batean dena dago lotuta, eta proposatutako irudian ere bai"

Abenduaren 5etik 8ra bitartean izango da 54. Durangoko Azoka, eta Ikasle Goizagaz hasiko da

Gerediagako presidenteak ere ekosistema berba erabili zuen kartela zein kulturaren plaza definitzeko. Abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo da 54. Durangoko Azoka. Lehenengo egunerako, Ikasleen Goiza antolatu dute. Bigarren, II. Sormen Bekaren irabazlea nor den jakinaraziko dute.

Gai librea

Fernan Ruiz Larrigan Euskaltzalea



Izozkailua

Urte bi zerratzen gure herrira etorri barik lagun ita-lirrak. Hango errutinak utzi eta denboratxo emango du gure artean, lasai, erlojuari begiratu barik. Pasean irten gara errecondotik gorantz. Denbora geldiezinaren az-tarnak nabariak dira bere aurpegieran, ibileran... Eta horretaz, denboraz, dihardu-gula, errekararen ur emariari begira geratu da presaren parrera iritsi garenean. Ahateak igerian presa gaineko barean. Geldiezina da errekararen ur-jarioa, baina baditu mantso guñe ederrak ere, uraren oldarrari aurre egiteko eraiki baitziren presetako batzuk. Presa gaintik behera, oster, ur-jauzia, eta hortik aurrera, ur-laster ikusgarria. Horrela margotu du lagunak denboraren gupidagabea, noiz edo behin, gezurretako eten ustekabeak eskaintzen badizkigu ere. Kontatu dit, behin, protesta aldi batean, haitz baten horman eskegita eman zituela egun bi eta, orduan, erlojua izoztu zitzaioa. Eta geraldaldi atseginaren ostean, atxilo eraman zuten eta bere modukoak otzanarazteko zulo ilunean sartu; han erlojuaren orratzak barik, nahimena izoztu zitzaion.

Espetxeratu dituzte gazteak eta politikoak, ideiak araztegiatara bideratzen ari dira; tratamendua behar duen hondakintzat hartu gaituzte, lohia kendu eta, atzera ere, ibilgu hesitu garbira itzulazteko, presa gaineko guñe geldo apainera. Itzelezko izozkailua eraiki dute baliabide ugari eta izugarriekin hornituta, ez dezagun gure buruaz beste egin ur-jauzitik behera botata, ez gaitezen ur-lasterretan behera ito.

Durangoko XXX. Hamabostaldi Musikalean arreta berezia ipini diete haur eta gazteei

Valen Atxotegi durangarra presidente duen Kantika koralaren kontzertuagaz hasiko da, domekan, 19:00etan



Musika Hamabostaldiaren aurkezpena.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bartolome Ertzillako kideek gazteak musika klasikora erakartzeko apustu argiagaz antolatu dute XXX. Hamabostaldi Musikala. "Hasierako filosofiari eusten diogu, eta musika klasikoak eutsi behar badio, gazteengan heldzen bagara izango da", azaldu du Alfredo Sanz zuzendariak. Kantika koralaren emanaldiagaz hasiko da Hamabostaldia, domekan. Azaroaren 9an, Charlie Parkerren abestiak eskainiko di-

Carion Wind Quintet musika talde danimarkarrak itxiko du hamabostaldiaren zikloa

tuzte Plateruenean. Azaroaren 17 an, Sagutxo Tuntuna ipuin musikatu egongo da ikusgai. Carion Wind Quintet talde danimarkarrak itxiko du zikloa.

CERAMICAS MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
www.macober.com

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1 ^a BASA Miren Amuriza (Elkar)	2 ^a ETXEAK ETA HILOBIAK Bernardo Atxaga (Pamiela)	3 ^a HEZURREN ERRETURA Miren Agur Meabe (Susa)	4 ^a LISIPE. lehenengo atarrik Uxue Alberdi (Susa)	5 ^a Sapiens Yuval Noah Harari (Elkar)
--	---	---	---	---



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Aurreko urteetakoen antzerako egutegia izango dut Euskadi Fundazioan”

Euskadi Fundazioak hamar txirrindulari berri batu ditu taldera, eta euren artean Mikel Bizkarra mañariarra dago

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Euskadi-Murias taldea desagertu eta gero, 2011n profesional mailan lehenengoz pedalei eragin zien taldera itzuli da Mikel Bizkarra. Ziklista mañariarra prest dago erronka berriari aurre egiteko.

Euskadi Fundazioak orain iragarri du zure fitxaketa, baina taldera batuko zinen zurrumurruak aurreragotik zetozen. Noiz hasi ziren hartu-emanak taldeagaz?

Denbora dezente da eurekin sinatu nuela, baina oraintxe egin da ofizial. Beraz, nahiko lasai egon naiz alde horretatik.

Pozik zaude aukera berriagaz?

Bai, pozik nago. Pena ere badut Euskadi-Murias desagertu egin delako, lagun ditudan asko talderik barik geratu direlako eta gauzak ondo egin ditugula uste dudalako. Baina, tira, bizitzak aurrera jarraitzen du eta niretzat aukera polita da Euskadi Fundazioagaz dudan erronka. Etxean jarraitzen dut eta gogotsu nago hurrengo denboraldiari begira.

Euskadi Fundazioa ez da talde arrotza zuretzat.

Ez. 2010ean Euskadi Fundazioan egon nintzen, baina amateurretan, Naturgas Energia izeneko taldean.

“**Pena ere badut Murias desagertu delako eta lagun ditudan asko talderik barik geratu direlako**”

Hurrengo urtean, eurekin egin nuen profesionaletarako saltoa. Hiru urte eman nituen han. Lehenengo biak Orbea izenagaz, eta azkenengoa Euskadi Fundazioa lez. **laztik hamar txirrindularik jarraitzen dute eta hamar berri batu dituzte. Zer iruditzen zaizu denboraldi berri-rako osatu duten taldea?**

Talde polita egin dutela uste dut. Murias taldeko bost txirrindulari



Mikel Bizkarra
Etxegibel
Euskadi Fundazioaren txirrindularia
Mañaria | 1989

batu gara, tartean Espainiako Vuel-tan etapa garaipena lortu zuen Mikel Iturria. Horrez gainera, Juan Jose Lobato eta Ruben Fernandez ere batu dira. Ilusioa eta gogoa duten gazte asko ere badaude, eta seguru denboragaz hazten joango direla. **Egin duzu berba taldeko zuzendari-kin denboraldi berriari begira?** Oraindino goiz da gehiago zehazteko, baina Jorge Azanza taldeko

zuzendariagaz berba egin dut eta aurreko urteetan izan dudan egutegiaren antzerakoa egingo dut. Apiril inguruan, Euskal Herriko Itzulirako ondo egotea da asmoa. Etxeko lasterketa da eta hitzordu in-portantea da, taldearentzat zein niretzat. Lehenengo helburua bertara ondo heltzea izango da. Oraindino asko falta da, baina apurka joango gara martxa hartzen.

“**Ilusioa eta gogoa duen jende asko dago, eta seguru denboragaz hazten joango direla**”

Abadiñoko bost pilotarigaz, Bizkaiak berriro irabazi du bote luzeko txapelketa

Hirugarren urtez jarraian irabazi du txapela. Bizkaiko taldean bost pilotari abadiñar izan dira: Ander Antxia, Egoitz Amantegi, Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Jon Arana

PILOTA • J.D.

Berrizko pilotaleku irekian jokatu zen finala, joan zen zapatuan. Bizkaia zen faborito, eta ez zuen hutsik egin. Lehenengo jokoak, denetan parekatuenak, bizkaitarren aldera egin zuen, lau berdinketaren ondoren. Ordutik aurrera, Gipuzkoak piztualiak izan zituen arren, Bizkaia nagusitasunez gailendu zen: 7-3.

Bizkaia orain hiru urte hasi zen Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketan parte hartzen, eta jokututako hiru finalak irabazi ditu. Aurtun, bost pilotari abadiñar izan dira taldean: Ander Antxia, Egoitz Amantegi, Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Jon Arana.



Bizkaiko taldeko pilotariak txapelagaz.

Bederatzi talde prest Elorrioko Txapeldunen Ligan aritzeko

Areto-futbola gustuko dutenei bideratutako txapelketa berri bat antolatu du Elorrioko Buskantza taldeak

ARETO-FUTBOLA • J.D.

Kirola eta areto-futbola sustatzeko eta jendarteratzeko helburuz, Elorrioko Buskantza taldeak Txapeldunen Liga izeneko txapelketa antolatu du. Kirol hori gustuko duten lagun taldeei bideratutako ekimena da. Bederatzi taldek eman dute izena txapelketan parte hartzeko. Gehienak Elorriokoak dira, baina Berrizkoren bat ere badago.

Izen-emateagaz jaso duten dirua ekimena aurrera eramateko erabiliko dute. Txapelketa laster hasteko asmoa zuten, baina Bizkaiko kiroldegietan aste birako deituta dagoen grebaren ondorioz, hasiera apur bat atzeratuko dute. Txapelketa hasten denetik aurrera, partidua barikuro jokatu dituzte, Elorrioko kiroldegian.

20. urteurrena

2020an 20 urte beteko dira Elorrioko Buskantza sortu zenetik, eta areto-futbol txapelketa urteurren hori apurka berotzen joateko ekimena ere bada. Aurtun, Hirugarren Mailan dihardu Elo-

Talderik gehienak Elorriokoak dira, baina Berrizkoren bat ere badago tartean

rrioko taldeak, eta oso ondo dabil. Bost jardunaldi joan direnean, bigarren dago sailkapenean, 13 puntugaz. Puntu kopuru berdina du hirugarren sailkatuta dagoen Durangoko Sasikoa taldeak ere.

Denboraldia hasi denetik, Durangoko Kulturalak ez daki etxean galtzea zer den

Tabiran jokaturako lehietatik lau irabazi eta bi berdindu ditu

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Durangoko Kulturalak gotorleku bihurtu du Tabira futbol zelaia. Liga hasi denetik, ez daki etxean galtzea zer den eta puntu horiei eskerrak Hirugarren Mailako goaldetan dago denboraldiaren herena ia joan denean.

Igor Nuñezek zuzendutako taldeak sei partidu jokatu ditu etxean. Baloiaren jabetzan eta joko alaian oinarritutako jokamoldea erabilita, euretariko lau irabazi ditu: Tolosaren, San Ignacioren, Somorrostroren eta Deustoren kontrakoak. Santutxuren eta Pasaiairen aurkako partiduak, ostera,

berdinketan amaitu dira. Datu bat deigarria da estatistiketan: Tabiran gol bakarra jaso du orain arte, joan zen asteburuan Pasaiak sartu ziona, hain zuzen ere. Gainerako neurketa guztietan hutsean mantendu du bere atea.

Etzetik kanpora, oster, hobetu beharra dauka; berdinketa bi baino ez ditu lortu orain arte

Etzetik kanpora, oster, hobetu beharra dauka. Orandino ez daki Tabiratik urrun irabaztea zer den; berdinketa bi baino ez.

Urteurreneko kontzertua

Zelai barruan ez ezik, handik kanpora ere albiste da Durangoko Kulturala, mendeurreneko ospakizunetan murgilduta dago eta. Azaroaren 9rako Landako Gunean antolatu duen musika jaialdia da hurrengo ekimena. Tributu talde bik zabalduko dute jaialdia: Itoizen bertsioak jotzen dituen Espaloian taldeak, 19:45ean, eta AC/DCren bertsioekin osatutako Black Ice Tribute Band-ek, 21:45ean. Kartelburuak, Gozategi taldeak, 23:30ean hasiko du emanaldia. Txosna handi bat eta fast food furgonetak ere ipiniko dituzte. Sarrerak Tabira Zelaian, eta Axpe, Anboto, Ibaizabal eta Kale Kantoi tabernetan daude salgai, 5 euroan.



Tabiran jokaturako partiduetan gol bakarra jaso du Durangoko Kulturalak. **LUIS ITURRIOZ.**



300 bat txirrindularik parte hartuko dute Berrizko ziklo-krolean.

Berrizko Ziklo-krosa lehiatuko dute domekan, Berrizburun prestatu duten zirkuituan

Umeen artean ziklo-krosa sustatzeko, 2006tik aurrera jaiotakoentzako zirkuitu bat prestatuko dute lehenengoz

ZIKLO-KROSA • J.D.
Domekan, Berriz Bizikletari Elkartek antolatzen duen Ziklo-kros Sari Nagusiak 10. aldia egingo du. Mailaz maila, 300 bat parte-hartzaile batuko dira Berrizburu inguruan prestatu duten zirkuituan.

Aurtengo nobedade nagusia da umeek ere ziklo-krolean parte hartzeko aukera izango dutela. Eurei egokitutako zirkuitu bat atonduko dute Berrizburun, eta 2006tik aurrera jaiotako umeak hantxe ibiliko dira. "Azken urte bietan buruan izan dugun zerbait da. Berrizen umeek badute zaletasuna eta sarritan master mailetan parte hartzen dutenak

seme-alabekin etortzen dira. Ziklo-krosarekin gozatzeko aukera eskaini gura diegu", adierazi du Roberto Gomez Berriz Bizikletari Elkarteko kideak. Umeen probak 12:50ean hasiko dira eta izen-ematea egunean bertan egin daiteke.

Lasterketak mailaz maila
Master mailako lasterketekin hasiko dute eguna, 10:00etan, 11:00etan, kadeteen txanda izango da. Hauen ostean, 11:50ean, neska-mutil juniorrak eta elite mailako emakumeak lehiatuko dira Berrizburun. Azkenik, 13:10ean, 23 urtez azpiko eta elite mailako gizonen lasterketa hasiko da.

Asteko kirolaria



JON ANDER SORDO ALVAREZ

Elorrio, 1991

Aurtengo denboraldian, Elorrio futbol kluba bikain dabil: bost garaipen eta berdinketa bat orain arte. Talde osoaren defentsa la-

“Atea hutsik mantenduta, badakigu partidua irabazteko aukera izango dugula”

Sei partidutan, Elorrio futbol taldeak ez du golik jaso eta lider dago Ohorezko Mailan

nean dago gakoa, Jon Ander Sordo zentralak azaldu duenez.

Itxaroten zenuten hain hasiera ona?
Ezta pentsatu ere! Partidurik partidu irabazten joan eta lider ipini gara. Baina ez genuen itxaroten. **Defentsa lanean oinarritzen da zuen futbola?**

Atea hutsik mantenduta, badakigu partidua irabazteko aukera izango dugula, eta horretan ahalegintzen

gara. Denon lanaren fruitu da, arrelariena zein atzelariena. Gurea ez da jokorik politena, baina emaitza onak eman dizkigu orain arte. **Hasiera hau ikusita, zeintzuk helburu dituzue aurtengo ligan?**
Gure helburua argia da eta ez da aldatu. Mailari eusteko adina puntu batzea da behinena. Bolada ona dugu eta aprobetxatu egin behar dugu puntuak batzeko. Eta partiduek aurrera egin ahala goian

mantentzen bagara, oraindino hobeto. **Zelan dago taldea?**
Une honetan, taldeko lau joklari lesionatuta daude; belauna dela, orkatila dela.... Horregatik, garrantzitsua da guretzat harrobiko joklariak izatea. Joan zen asteburuan, gazte mailako Ibai Intxaurrek lehenengo taldeagaz debutatu zuen. Zentral aritu zen, nigaz batera.

Eta zelan moldatu zen gaztea?
Hasieratik jokatu zuen eta partidu ikaragarria egin zuen. Debuteko partiduan hain maila ona ematea azpimarragarria da. Ez da erraza izaten nerbioak alde batera uztea. **Zuk ere badakizu gazterik debutatzea zer den.**
Bai, gazte mailakoa nintzela debutatu nuen neuk ere lehenengo taldean. Harrezkero, hamar bat urte joan dira. Taldeko beteranoe-netarikoa naiz!
Zu zeu zelan zabilta aurtent? Gustura egiten zabilta lanagaz?
Bai, oso pozik. Oraingoz, partidu guztiak jokatu ditut eta, gainera, taldea hain ondo dabilenez, ezin dut gehiago eskatu. Ea horrela jarraitzen dugun.

Bibotea utzi eta Movember kanpainagaz bat egitera deitu du Durango Rugby taldeak

Mundu osoan egiten den ekimena da eta prostata eta barrabletako minbiziaren inguruko kontzientziazioan sakontzea du helburu

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

2003an Australian sortu zenetik, mundu osora hedatu den mugimendua da Movember, eta izen bereko fundazioak gidatzen du. Gizartea prostata eta barrabletako minbiziaren inguruan kontzientziatzea da ekimenaren helburua. Ildo horretatik, gaia bistaratzeko, kanpaina bati ekiten diote urtero, azaroan, eta Durango Rugby Taldeak deialdi horregaz bat egiten du.

Martitzenean, DRTko kideek prentsaurreko bat eskaini zuten kanpainaren nondik norakoak azaltzeko. Azaroan zehar gizonezkoek bibotea uztea da helburua, kanpainaren alde daudela erakusteko keinu modura. Bibotea erakutsiz argazkiak sare sozialetan partekatzeko eskatu dute, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan. Emakumeek, ostera, kanpainari zabalkundea emanaz lagundu dezaketela azaldu zuten.

Aurten ere mugimenduaren aldeko donazioak egin daitezke. Movember mugimenduaren web-

gunera sartu eta Durango Rugby Taldeak sortuta duen taldera sartuta egin daitezke ekarpenak. Gune horretan jasotzen duten diru guztia fundazioari emango diote ekimena amaitzen denean. Iaz, 1.533

euro batu zituzten Movember mugimenduaren alde. Horrez gainera, Durangoko tabernetan itsulapikoak banatuko dituzte ekarpenak bertan egiteko eta Rugby tabernan askotariko produktuen otzara

baten zozketan parte hartu ahal izango da. Movember kanpaina Mov-Day izeneko jaiagaz agurtuko dute, azaroaren 28an. Pintxopote berezia, photocall-a eta oparien zozketa izango dira Rugby tabernan.



Ezkeretik hasita: Antxon Iriondo, Iker Mendieta eta Santi Alberdi martitzenean Rugby tabernan egindako aurkezpenean.

Durangoko Udalak Asier Agirre munduko azpitxapelduna omendu du

Atleta durangarrak zilarrezko domina irabazi zuen 5.000 metroko proban, eta udal ordezkariak harrera egin zioten udaletxean

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Orain asteburu bi Brisbanen (Australia) lehiatutako INAS munduko atletismo txapelketan, Asier Agirre atleta durangarra azpitxapeldun geratu zen 5.000 metroko proban. Lorpen hori aitortzeko, Durangoko udal agintariak harrera egin zioten udaletxean. "Oheora da Durangok zure moduko korrikalari bat iza-

tea", adierazi zuen Ima Garrastatxu alkateak.

Agirrek "ohore" moduan hartu zuen udalaren aitorpena, eta orain sei urte hil zitzaion amamari eskaini zion zilarrezko domina. Lorpenek ez dutela itsutuko adierazi zuen: "Bihar gaurko ilusio berdina-gaz eta umiltasunez joango naiz entrenatzera", adierazi zuen Agirrek.



Julian Rios alkateordea, Asier Agirre atleta eta Ima Garrastatxu alkatea ekitaldian.

Jokaldia

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Akabo All Blacks en nagusigoa?

Mundialaren IX. edizioak hainbat ezusteko ekarri ditu. Nagusia, Zeelanda Berriak ezin izango duela bere nagusitasuna berriztatu, Ingalaterrak mendean hartu zuelako finalerdian. Porrot honek esan nahi du hego hemisferioko "beltzen" nagusitasuna bere amaierara heldu dela?

Partida bat galtzeagatik hori esatea larregi litzateke. Ezin dugu ahaztu aurretik Mundiale-tako 18 partida jarraian irabazi dituztela, bitartean bi Munduko Txapelketa lortuz, 2011n eta 2015ean. Guztira, 4.403 egun egon dira hor goian, eta zelan lortu dute hori? Lana, esfortzua eta berezkoa duten talentua eta gaitasuna erakutsiz.

Horrek ekarri du ere, beste taldeek sekulakoak egitea AB-en maila lortzeko, eta mendean hartu ahal izateko. Hor dugu Ingalaterraren adibidea. Orain dela lau urte, kale egin zuten beraien ikusleen aurrean. Honako honetarako azeri zahar baten eskuetan jarri dira: Eddie Jones. Nor dugu Eddie Jones? Azken urteetan All Blacksak Munduko Txapelketa batean mendean hartzeko gai izan den entrenatzaile bakarra. Australiarra jaiotzez, bera dugu Ingalaterrako ibilbide historikoan irletatik kanpo jaiotako entrenatzaile bakarra. Berak lortu du talde sendoa eta indartsua elkartzea.

Nortzuk izango dituzte aurkari finalean? Hegoafrika. Agian une honetan Ingalaterra mendean har dezakeen talde bakarra, antzerako jokoa egiten duelako. Nork irabaziko du zapatuko finala? Batek daki! Nik apustua egitekotan Ingalaterraren alde egingo nuke, baina final batean dena gerta daiteke. Egun berean Movemberri hasiera emango zaio. Biboteak uzteko garaia da!

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

Bezeroa, bere enpresako kudeaketa eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO / Tel.: 94 681 86 36 / Faxa.: 94 620 36 37 / info@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kotsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK ERRENTAN
HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel.: 699 17 40 23

Lana Formakuntza
LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun

ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp-a idatzi Tel.: 688 64 59 83 zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

ETXKO LANAK

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoan zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketa lanak egiteko,

arropa lisatzeko eta sukaldaritza lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurilaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.. 0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest

nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 zenbakira.

IRAKASKUNTZA

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

ASTE HONETAN

MAITE MAIORA



LEIRE ORBE



EDURNE KOCH




Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

DOAN

ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus





Botikak

BARIKUA, 1 - 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 2 - 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-13:30
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 4 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 5 - 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 6 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUENA, 7 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 19° / 15°	☁️
DOMEKA 🌧️ 18° / 15°	☁️
ASTELEHENA 🌧️ 16° / 11°	☁️
MARTITZENA 🌧️ 14° / 10°	☁️☀️
EGUAZTENA 🌧️ 14° / 10°	☁️☀️
EGUENA 🌧️ 17° / 10°	☁️☀️

Zorion Agurrak



Azaroaren 1ean, **Eki** eta **Izar** Ugaldea Villak 9 urte egiten dabez. Familia osoaren partez, zorionak eta musu handi bana. Egunaz disfrutatu dezaten opa diegu.



Zorionak, potxola! Muxu asko familia osoaren partez. Ondo pasa zure eguna, printzesa!



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Angel** eta **Liher (781. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zapatuan etxeko erreginak 7 urte egingo ditu. Familia osoaren partez, mosu haundi bat!



Urriaren 23an **Juanita** Zalbideren urtegune izen zan. Zorixonak, amama! Besarkada handi bat!



5 urte jada, txipiron! Zu beti irrifartsu eta gu poz-pozik. Asko maite zaitugu! Ama, aita, Anne, Gorka, amama, aitite, abuelo eta abuela!



Zorionak, **Hur!** Jarraitu zaren moduko alaia eta irribarretsua izaten! Mosu handi bat familia osoaren partez!

“Txikitan erroskilen oreagaz jolasten nintzen, umeak plastilinagaz legez”

Mallabiko gozoginen familiak badu jarraipena Xabat Osagaz. Mañe Azpiko baserrian mimo handiz prestatzen dituzten erroskilak, euskal pastela eta ogia ezagunak dira Euskal Herriko azoketan. Zapatuetan Donostian ipintzen dute postua

Xabat Osa Carbajo

• (Mallabia, 1989)
Gozogilea

Berba bitan

Postre bat

Gazta tarta

Postre on bati ezin zaio falta....

Azukrea. Bere neurrian hartzea ez da txarra.

Bete gura zenukeen amets bat

Orain arteko erritmoan eta martxan jarraitzea. Jendea konturatzea ondo jan behar dela norbera ondo egoteko.

Mendi bat

Anboto

Abesti bat

Oskorriren edozein

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Xabat Osa pastelgile, okin eta harakin familian jalo zen. Sukaldaritza ikasketak egin zituen Leioan, eta, orain, gozogintzan murgilduta dabil, aitagaz eta arrebaz batera. Umetatik edan dute gozogintzatik etxean, eta aitaren eskutik ikasi du gozogintzari buruz dakien guztia. Salmenta zuzena egiten dute Mañe Azpin, eta merkatuetan ere saltzen dituzte erroskilak, pastelak eta ogia.

Artisau teknikak erabilia eta garai bateko errezetak eguneratuta egiten dituzte gozoak. Etxeko edo familiako errezetak daude oinarrian?

Etxean erabilitako errezetekin lan egiten dugu, betidanik, baina teknologia berriak sartuta. 100 urtetik gora dira gure aitaren amama honetan hasi zela. Gero, aitiba-amen eskuetara pasatu ziren errezetak, aita lekukoa hartu zuen arte. Orain, neba-arrebak gabiltza aitagaz.

Zelan definituko zenuke zure gozogintza?

Lehengai naturalekin lan egiten dugu beti, bertako lehengaiekin ahal dela: Berrizko arrautzak, Mallabiko esnea.... Gure produktua naturala izatea gura dugu, eta lehengai ona erabilia produktu ona lortzen da.

Zerk motibatu zintuen gozogintzan hastera?

Harrapatu egiten du. Txikitatik ikusi dut aita gozogintzan, eta horrek beti motibatu izan nau. Aitak zelan disfrutatzen zuen ikusita, nik neuk ere gozatu dut.

Baduzu haurtzaroagaz lotutako kapritxorik?

Beti gustatu izan zaizkit erroskilak. Txikia nintzela, aitaren ondoan egoten nintzen bera beharrean zebilela. Erroskilen oreagaz jolasten

nintzen, umeak plastilinagaz legez. Segituan ikasi nuen. Gustatuz gero, eta joera izanez gero, gozatu egiten duzu umea izanda ere.

Zeintzuk dira zuek egindako gozoak?

Bizkotxo naturala, frutagaz eta maspasekin edo intxaurrekin eta almendrekin egindakoak, kokoak, erroskilak, madalenak... Txantxin-gorria ere egiten dugu, txerriaren txintxortagaz eta koipeagaz egindako gozoa. Antzina, baserrietan egiten zen. Kremazko eta txokolatezko euskal pastela ere egiten dugu, pastatxoak... eta azkenaldian gazta tarta berri bat, kapritxosagoa, gazta natural onagaz egindakoa.

Horiatariko zeinek du arrakastarik gehien?

Ogiak, erroskilek eta kokoak. Horiak bereizten gaituzte besteengandik. Euskal pastela eta bizkotxoa ere oso ondo saltzen ditugu.

Gozozalea zara? Erraz eusten diozu tentazioari?

Egindakoa probatu egin behar da tarteka-tarteka, baina aspalditik ez dut tentaziorik izan. Gozozalea naiz, baina ohitu gara inguruan gozoa edukitzera.

Gurago ditugu garai bateko zaporeak?

Gure kasuan, bai. Bezeroek betiko zaporeak eskatzen dituzte.

Pentsatu duzue berritzailea den gozoren bat egitea?

Beti gabiltza aldatzen. Sasoiaren arabera aldatzen dugu, apur bat berritzen joateko. Bestela, gozogintza industrialak jan egiten zaitu. Orain egiten hasi garen gazta tarta berezia, adibidez, ez duzu beste inon topatuko.

Postre txar batek bazkaria edo afaria zapuztu lezake?

Bai horixe! Postrerako lekua uzteko joera dugu, eta behin helduta txarra bada...



Lauhortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



La Ruleta

Barre bihurridun kalabazak ikusi ditugu Disney Channelen, eta gure umeak “truco o trato” mehatxu samurrekin etxeetako atarietan. Pozik dabilta karamelu eske aterik ate, eta oso xelebre daude beldurrezko mozorroak jantzita.

ETBn ikusi ditugu gabonetako saio bereziak, umeentzako jostailu iragarkiak 'bi-birizak' abesten, baita “en estas navidades turrón de chocolate”, eta aurtien ere familian batuko gara txokolatea eta almendrak saioetan batzen diren moduan, eta elkarri opariak egingo dizkiogu.

Otsailean San Valentín eguna dela eta Telecincon Nestlé bonboi kutxaren iragarkia ikusiko dugu. Gau berezia egingo dugu biok elkarrekin, eta bonboiak ahorrak aho pasatuko dizkiogu elkarri pelikuletan bezala, berriz, pozik.

Forum Sporteko mezua sartu zait sakelakoan, martxoan aitaren eguna dela eta %5eko beharapena dagoela. Mendirako bastoi bi erosi dizkiot, eta pozarren jaso ditut mendira joaten hasteko ilusioz, eta aspaldi aita horrela besarkatzen ez nuela.

Uda bertan da eta instagrameko iragarki horretan ageri zen leku horretara hegaldi nahiko merke bat aurkitu dut, eta aurtien abentura batzuk bizitzeko aukera izango dut, esperientzia zirraragarriak bizitzeko.

Eta azaroa da berriro ere, beste bira bat eman du La Ruletak Antena 3en, eta guk “Tira de la ruleta, de la ruleta tira ya ¡Tira ya!” oihukatu dugu zoriontsu, pandero eta banderak astinduz, emozioz oihu eta barre eta negar egingo dugu (zer da bizitza, hori baino), eta berriro hastera.

Hau da gaurko nire beldurrezko istorio proposamena.

Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian